



PRAKTIKASTIKA 2023/2024 DEIALDIAREN OINARRIAK

Praktika artistikoak eskolan
Arte garaikidea praktikan
Praktika artistikoen bidezko ikasketan

Praktikaren plastika
Plastikaren praktika
Praktikaren elastika

Ikasketaren plastika
Ikasketaren praktika
Ikaspraktika elastikoa

Praktikaren ikastika...
PRAKTIKASTIKA

_Sarrera

Tabakalerako hezkuntza arloak proposatzen dituen deialdiek ibilbide luzeko harreman eta prozesuak sortu nahi dituzte, hezkuntza-komunitatearekin norabide biko ikaskuntzara irekita dauden lankidetzak ahalbidetzeko. Ikasturtean zehar luzatzen dira, eta eragileen arteko harremana sendotzeko, lankidetzan bide berriak jorratzeko eta elkarrekin hausnartzeko espazioak sortzeko aukera ematen dute. Kultura garaikidea eta jardun artistikoak hausnarketa horretarako eta ikaskuntza-prozesu kolektiboak garatzeko tresnak dira.

Era berean, jardutetik hausnarketara eta egitetik pentsatzera jauzia egitea aldarrikatzen dugu, lanaren filosofia gisa. Ez ditugu bi eremuak banandu nahi, elkarren artean elikatzen baitira.



Zer da PRAKTIKASTIKA?

PRAKTIKASTIKA lankidetza proposamen bat da, Tabakalerako Hezkuntza arloak eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batek eskola-eremuan artea beste modu batzuetara jorrazteko aukera emango duen epe luzeko proiektu bat aurrera eramateko.

ikasturte osoan zeharreko lankidetza honek, ikaskuntza eta esperimentazio artistikoko prozesu bat garatzean datza; izan plastikako, ikusizko eta ikus-entzunezko hezkuntza irakasgaiaren esparruan, izan beste irakasgai batzuen esparruan - irakasleen arteko aliantzak eta metodologia edo curriculum-eduki desberdinen arteko topaketa bilatuz.

Ikaskuntza-prozesu horretan, Tabakalerako lan-espazioekin eta 2de0 Tabakalerako euskarazko ikus-entzunezkoen laborategiko espazioekin lotura duten artista eta sorkuntza-eremuko pertsonen laguntza izango dugu.

Hortaz, hautatutako ikastetxearen eta Tabakalerako Hezkuntza Sailaren eta 2de0ren arteko prozesu esperimentalak da, ikasgelan ikasturtean zehar garatuko diren eduki eta egiteko moduak elkarrekin birpentsatzea proposatzen duena.

Zertarako? Zein da helburua?

Deialdi honen sorburua honako hau da: jardun artistiko garaikideak hezkuntza-estrategia gisa sartzeko beharra, irakasleei baliabide berriak eskaintzekoa eta, aldi berean, eskola barruko zein kanpoko lan kolaboratiboa sustatzekoa. Era berean, irakasgai “artistikoen” eskola-curriculumeko edukiak astindu, beste irakasgaiekin loturak sortu eta horiek jorrazteko beste modu batzuk bilatu nahi ditu.



PRAKTIKASTIKAREN erronka nagusia da gazteen errealitatera gerturatuz eta beren interesetatik abiatuta, artearen bidezko ikaskuntza- eta sorkuntza-prozesu baten bidez. Gure ustez, ikasleak, hau da gazteak, edukien kontsumitzaileak dira, baina baita sortzaileak ere; batez ere ikus-entzunezko eduki digitalenak. Haien bitartez zentzu kritiko eta sortzailea jorratu daiteke.

Norentzat da?

Donostialdeako Bigarren Hezkuntzako edozein ikastetxetako *Plastikako, Ikusizko eta Ikus-Entzunezko Hezkuntza, Teknologia eta Digitalizazioa edo Adierazpen artistikoa* bezalako irakasgaietako ikasle eta irakasleei zuzendua dago, hasiera batean. Hala ere, hezkuntza eremuko beste irakasle edota agenteen arteko aliantzak interesatzen zaizkigunez, deialdi hau irekia dago estrategia artistikoak bere lan-metologian txertatzeko interesa daukan Bigarren Hezkuntzako edozein hezitzaileari.

Noiz egingo da?

Proiektua 2023-2024 ikasturtean burutuko da. 2023ko irailean hasi eta 2024ko ekainean amaituko da. Proiektua egiteko ordutegia eta egutegia parte hartzen duen ikastetxearekin adostuko da (eskola-ordutegiaren barruan).

Nola har dezakezue parte?

Deialdia **maiatzaren 31tik ekainaren 21era** bitartean egongo da irekita, biak barne. Parte hartzeko, mezu elektronikoa bidali behar duzue honako helbide honetara: hezkuntza@tabakalera.eus. Mezu horretan, ikastetxearen aurkezpen labur bat eta deialdian zergatik parte hartu nahi duzuen azaldu beharko duzue (**gehienez 600 hitz**).

Ondorengo galdera eta adibideek gida zaitzakete zuen hautagaitzaren aurkezpen-testua prestatzerakoan:



*1. Nor/nortzuk daukazue interesa deialdian parte hartzeko?
(ikastetxearen izena, irakasle(ar)en profila, ikasgaia(k))*

Adb. (1): Ikusentzunezko hezkuntza edo/eta plastikako irakasle 1. DBH4ko talde 1

Adb. (2): Ikusentzunezko hezkuntza edo/eta plastikako irakasle 1 + ingelerako irakasle 1. DBH4ko 2 talde

Adb. (3): Irakasgai ezberdinetako 5 irakasle, DBH2ko taldea

*2. Zer lantzea gustatuko litzaizu(e)ke datorren ikasturtean?
Badaukazu(e) proposamen zehatzik sorkuntza-prozesua bideratzeko? (intereseko gaiaren azalpen laburra, motibazioa eta egindako aurretiazko lanak, hala badagokio)*

Adib. (1) Podcast bat sortu nahiko genuke eskolan kezkatzen gaituzten gai batzuk lantzeko.

Adib. (2) Bideomapping edo antzeko tekniketan interesa dugu.

Adib. (3) Ikastetxeko ikasleek kontsumitzen eta sortzen dituzten ikusentzunezko edukietan interesa dugu. Hauek euskara hutsean sortzeko aukerak zabaldu nahi ditugu.

Behin proposamenak aurkezteko epea agortuta, elkarrizketa pertsonal labur bat egingo dugu interesa duten pertsona/talde bakoitzarekin, ekainaren 21 eta 28 bitartean. **Ekainaren 30ean** jakinaraziko dugu hautatutako ikastetxea zein izan den.

Harremanetarako:
hezkuntza@tabakalera.eus